

## IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA DESJABETZEA, TEBAS/CAMPANAS-BERIAINGO SANEAMENDU-KOLEKTOREA

Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrek, 2022ko ekainaren 23an egin zuen saioan, akordio hau hitzartu zuen:

“SM286961 Tebas/Campanas-Beriaingo saneamendu-kolektorea” lanaren xedea da Tebas eta Campanasko saneamendua gauzatzeko beharrezkoak diren obren definizio eta balorazio osoa egitea, herri horien isurketak jasoko dituen kolektore bat eraikita, ondoren hondakin-uren isurketak Aratzuriko HUAN tratatu eta arazteko aurretiko eta beharrezko pauso moduan.

Muru Artederreta, Biurrun eta Olkutz herrietako hondakin-urak etorkizunean bilduko dituen eskualde-kolektorearen barnean dago proiektu hau.

Azkenik, eta kolektorea egin ondoren, Tebasi eta Campanasi egun zerbitzua ematen dieten hobi septikoak eraitsiko dira.

2022ko maiatzaren 3an, SCPSAren Administrazio Kontseiluak “SM286961 Tebas/Campanas-Beriaingo saneamendu-kolektorea” proiektua onartu zuen. Administrazioari jakinarazteko aurrekontu zenbatetsia 2.652.930,04 euro da (%21eko BEZa barne).

Kontuan hartuta, 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 10. artikulua eta Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 215.2 artikulua araberak, Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrek obren planei eta tokiko zerbitzuei dagozkien obren proiektuak onartu behar dituela, izan ere, onartzeak inplizitu baitakar erabilera publikokotzat deklaratzeko eta haietan jasotako ondasunak okupatu behar izatea, nahitaezko desjabetzearen eraginetarako.

Obra horiek egiteko beharrezkoak diren lursailak desjabetzea beharrezkoa izanik, eta aintzat hartuta, Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 47.4 eta 29. artikuluen, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.d) artikulua eta Iruñerriko Mankomunitatearen Estatutuen 4. artikulua araberak, erakunde honek desjabetze-ahalmena gauzatu ahal duela, egokia da desjabetzeko espedientea hastea.

Batzar Nagusiak 2021eko urriaren 21ean egin zuen saioan, nahitaezko desjabetzearen espedienteak izapidetzeko Batzar Nagusiaren eskuduntzak Batzorde Iraunkorren esku uztea onartu zen. Horrenbestez:

### HITZARTU DA:

1.- “SM286961 Tebas/Campanas-Beriaingo saneamendu-kolektorea” obraren proiektua onartzea, desjabetzeko espedientea hastea eta proiektu horrek ukitzen dituen ondasunen eta eskubideen zerrenda hasiera batean **ONARTZEA**. Onuraduna “Iruñerriko Zerbitzuak, S.A.” izango da.

2.- Proiektuak ukitutako ondasunen eta eskubideen onura publikoa eta okupatu beharra **AITORTZEA** eta deklaratzeko, onarpenari lotuta baitaude.

3.- Proiektua eta ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrenda **JENDAURREAN EDUKITZEA** hamabost egun baliodunean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean kaleratzen denetik aurrera zenbatuta, beren burua ukitutzat dutenek denbora horretan egokiak iruditzen zaizkien ohar edo

alegazio guztiak eta argitaratutako zerrendako okerrak zuzentzeko behar diren datuak ekar ditzaten, idatziz. Idatzia, ahal izanez gero, telematikoki bidali ahal izango dute (<https://sedeelectronica.mcp.es/>), Iruñerriko Mankomunitatearen egoitzara (Chinchilla Jeneralaren kalea, 7, 31002, Iruñea, Nafarroa) edo Tebas-Muru Artederretako eta Noaingo (Elortzibar) udaletxeetara. Egoitza horietan, hain zuzen, proiektuaren eta lursail-planoen kopia bat edukiko dute eskura.

**4.-** Akordio hau **KALERATZEA**, ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrendarekin batera, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Foru Komunitateko egunkari batean, eta Iruñerriko Mankomunitateko eta Tebas-Muru Artederretako eta Noaingo udaletxeetako iragarki-oholetan.

**5.-** Ebazpen hau ukituei **JAKINARAZTEA**, erabaki hau inpugnatzerik ez dagoela ohartaraziz, administrazio-bidea amaitzen ez duen tramiteko egintza baita”.

Iruñean, 2022ko ekainaren 24an. Lehendakaria, David Campión Ventura.

**PROIEKTUA: TEBAS/CAMPANAS-BERIAINGO SANEAMENDU-KOLEKTOREA  
UKITUTAKO ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA ZEHATZA ETA INDIVIDUALIZATUA**

	JABEAREN DATUAK	UKIPENAK					LURZATIEN DATUAK			
	TITULARRA	AKUEDUKTU ZORTASUNA M.L.	ZORTASUN EZARPENA M2	OKUPAZIOA ERREGISTROAK		BEHIN- BEHINEKO OKUPAZIOAK M2	POLIGONO ZK.	LURZATI ZK.	UDALERRIA	LURRAREN ERABILERA
	IZEN-ABIZENAK			M2	Zk.					
TI-01	GAZTELU BEGUIRISTAIN Joaquín	55	330	10	2	1.375	1	387	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA
TI-02	GAZTELU BEGUIRISTAIN Joaquín	70	420	5	1	1.750	1	527	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA
TI-03	BEGIRISTAIN SAN MARTIN Mercedes GAZTELU IRIBARREN Eduardo GAZTELU IRIBARREN Luis	15	90	0	0	375	1	334	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA
TI-04	GAZTELU IRIBARREN Luis GAZTELU IRIBARREN Eduardo GAZTELU IRIBARREN María Jesús	20	120	5	1	500	1	333	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA
TI-05	GAZTELU IRIBARREN Luis GAZTELU IRIBARREN, Eduardo GAZTELU IRIBARREN María Jesús	15	90	0	0	375	1	332	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA
TI-06	MENDINUETA GOÑI Ángel MENDINUETA GOÑI Ángela	15	90	0	0	375	1	331	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA
TI-07	GAZTELU BEGUIRISTAIN Joaquín	10	60	0	0	250	1	330	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA
TI-08	MENDINUETA GOÑI Ángel MENDINUETA GOÑI Ángela	12	72	0	0	300	1	329	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA
TI-09	GAZTELU BEGUIRISTAIN Joaquín	35	210	5	1	875	1	328	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA
TI-10	GAZTELU IRIBARREN Luis GAZTELU IRIBARREN Eduardo GAZTELU IRIBARREN María Jesús	63	378	0	0	425	1	151	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA
TI-11	ASTIZ ESLAVA José Luis ASTIZ ESLAVA Jesús Matías			0	0	285	1	303	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA

TI-12	ARTOZQUI ERDOZAIN Corpus IRURZUN ESLAVA María Asunción	0	0	0	0	1.800	1	310	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA
TI-13	JIMENEZ ECHEVERRIA Maria Carmen	90	540	5	1	2.250	1	300	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA
TI-14	ASTIZ ESLAVA José Luis ASTIZ ESLAVA Jesús Matías	200	1.200	15	3	5.000	2	72	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA
TI-15	ARTOZQUI ERDOZAIN Corpus IRURZUN ESLAVA María Asunción	135	810	5	1	3.375	2	79	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA
TI-16	ARTOZQUI ERDOZAIN Corpus IRURZUN ESLAVA María Asunción	1,8	11		0	36	2	188	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	LARREA
TI-17	ASTIZ ESLAVA José Luis ASTIZ ESLAVA Jesús Matías	390	2.340	35	7	11.125	2	90	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA
TI-18	CARBONELL URRUTIA María Ángeles BARCOS OTANO José Ignacio BARCOS OTANO Francisco Javier BARCOS OTANO Elena BARCOS OTANO María Carmen	110	660	5	1	2.750	2	94	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA
TI-19	GAZTELU IRIBARREN Luis GAZTELU IRIBARREN Eduardo	0	0	0	0	4.000	2	101	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA
TI-20	ASTIZ ESLAVA José Luis ASTIZ ESLAVA Jesús Matías	0	0		0	75	2	176	TEBAS-MURU ARTEDERRETA	ALORRA
NO-01	ESLAVA ZOZAYA Ángeles Rosario	90	540	10	2	2.250	4	145	NOAIN (ELORTZIBAR)	ALORRA
NO-02	ESLAVA ESPARZA Jesús ZABALETA VALENCIA Francisca Joaquina	225	1.350	15	3	5.625	4	710	NOAIN (ELORTZIBAR)	ALORRA
NO-03	ESLAVA ESPARZA Jesús ZABALETA VALENCIA Francisca Joaquina	155	930	15	3	3.875	4	709	NOAIN (ELORTZIBAR)	ALORRA
NO-04	FERRER ZABALA Arturo FERRER ZABALZA Ignacio	205	1.230	15	3	5125	4	708	NOAIN (ELORTZIBAR)	ALORRA
NO-04	FERRER ZABALA Arturo FERRER ZABALZA Ignacio	820	4.920	65	13	20.500	4	135	NOAIN (ELORTZIBAR)	ALORRA